

229. zk.

Bigarren aroa

Maiatzak 15  
2014

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero


### Erreportajea

Plaiiaundiko  
Parke Ekologikoa,  
nazioarteko altxorra



### Kirolak

Bidasoa XXI,  
igeriketaren gailurrean



## Xabier Urresti:

# Olatuak ogibide

- 6 Santiagora erromesaldia
- 8 Gastronomia. Euskal sukaldaritzaren historia
- 9 Errentaren aitortpena Gipuzkoan eta Frantzian
- 10 Iñaki Iturrioz, Udaleko Kirol Ekintzen arduraduna
- 12 Haurren Leihoa. Elatzeta LH 1
- 13 Gazteen Lanak. Toki Alai BHI
- 14 Gaztea. Musikirun Maketa Lehiaketa
- 15 Kultur agenda

[www.irunero.com](http://www.irunero.com)

Sar  
zaitez  
web orrian



### BATXILERGOAK

- ✓ Natur eta Teknologia
- ✓ Giza eta Gizarte Zientzietakoa

### ATE IREKIETAKO JARDUNALDIA:

2014KO MAIATZAREN 21EAN  
ERDI MAILAKO ZIKLOA: 18:00.  
GOI MAILAKOA: 19:00.

### LANBIDE HEZIKETA

Goi Mailako  
Heziketa Zikloak

- ✓ Haur Hezkuntza
- ✓ Administrazio eta Finantzak
- ✓ Web Aplikazioen Garapena
- ✓ Dietetika
- ✓ Diagnosi Klinikoen Laborategia
- ✓ Garraioa eta Logistika
- ✓ Nazioarteko Merkataritza

### LANBIDE HEZIKETA

Erdi Mailako  
Heziketa Zikloak

- ✓ Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta
- ✓ Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- ✓ Administrazio kudeaketa
- ✓ Mikroinformatika-Sistema eta Sareak

Eskaintza partziala eta  
etengabeko formakuntza.  
**FORMAKUNTZA DUALA**

HELBIDEA: Plaiaundi z/g. IRUN  
INFORMAZIOA:  
943 61 75 47 / 943 61 75 48

[www.plaiaundi.hezkuntza.org](http://www.plaiaundi.hezkuntza.org)  
[plaiaundi@plaiaundi.net](mailto:plaiaundi@plaiaundi.net)

## Nahi eta ezin



Xabier Kerexeta

Benetan diotsuet oraingo honetan txintxo portatu nahi nuela, ez nuela inor zirikatu nahi, errare humanum dela baina jakintsuek zuzentzen badakitela, eta abar eta abar. Ez dago modurik, ordea: nire burua zentzuzen ahalegintzen naizen bakoitzean, danba! muturrekoa berriro ere.

"Muztuta" bukatzen nuen aurrekoan, eta argitaratu orduko kartel haiek zuzenduak zituen baten batek. Emaizta hala moduzkoa, U O bihurtzeko saioan O (baina ez huts!) lortu baitute, beste letren lerrotik goragoko txapel gisako zerbait gehituta. Tira, txapela oso gauza gurea da eta ez gara kexatuko, erregalo itsusiekin bezala inportanteena asmoa delako. Joan den hilabeteen ospatutako maratoni erdia ere (barka: erdi maratonia) kartel fisikoetan "Iruneko" zena, Interneten "Irungo" bilakatu zen... eta askoz ere inportanteago, hasieran

weba erdara hutsean zen eta orain euskaraz ere bada. Hobeto egon litekeela? Jakina, baina bada zerbait. Zer dela eta beti intzirika ibiltzeko tema hori?

Irungo Udalak sustatu nahi duen txartela ere horixe da: irun txartela, ez tarjeta irun. Hori bai, txintxo portatu nahi, eta ezin: izan ere, aukeran bozkatzeko lau txarteletan Nombre Apellido 1 Apellido 2, beste gabe. Zer, bada? Euskaldunok ez dugu izendeiturarik? Txartelaren beste aldean ote da, eta erakusten dizkiguten lau aukeretan baten batek erdara lehenetsi? Edo oraindik orain aukeratzeko prozesuan dagoenez, behin betikoa erabaki arte utziko ote da itzultzeko, euskararen presentzia ofizialtasunak exijitzen duen agerpen hutsera mugatu nahian? Nik horren alde egingo nuke apustu. Zeren eta... elebitan dagoen botoia klikatu eta ezetz asmatu zein hizkuntzatan dagoen klikak naraman orria? Jakina, hortik euskarazkora jo dezakegu, ez da inor ahituko halako ahaleginarengatik. Eta gaitz erdi, bi hizkuntzak bereiz daudenean euskarazkoak zuzenean euskarazkora garamatzalako, ez baita beti halatan gertatzen.

Huskeriak, jakina... argi eta garbi erakusten digutenak gure Udala elebiduna ez baina elebakar con apéndice regional dela, eta euskaldunok haren apendizitis bat baino ez garela.

## Irun atzo Irun gaur

Union karrika atzo



IUA: 38489

Union karrika XX. mendearen hasieran.

Foruen karrika atzo



IUA: 53175

Foruen karrika 1936ko sutearen ondoren.

## Foruen karrika atzo

1910. urtera arte Kale Nagusia Kolon ibilbidearekin lotzen zuen kaleari Union deitzen zitzaion. Udalak izena aldatzeko erabakia hartu zuen, Foruei garrantzi handiagoa eman aldera. Iruneroren aurreko zenbakian azaldu genuen, hain zuzen ere, zinegotzi ez errepublikazaleek Zabaltza plazari Pi y Margall y de los Fueros izena jarri nahi ziotela, baina azkenean ez zutela lortu.

Jatorrian foru hitzak Erdi Aroan hiribildu bati ematen zitzaion arau edo lege sorta esan nahi bazuen ere, kasu honetan Euskal Herriko lurralde bakoitzeko foruak aipatzen dira; izan ere, beren arautegi propioa gorde zuten Estatu espainiarren barnean, 1876an ezabatu ziren arte.

Lehenengo argazkian Union deitzen zeneko ikuspegi bat. Eskuineko aldean merkatu zaharraren atzeko aldea ikusten da. Bigarren argazkian, Gerra Zibileko



Foruen karrika 1987an.  
IUA: 41335

sutearen ondoren (1936ko irailaren 4ean). Hirugarren irudian kalearen goiko aldea azaltzen da, 1987an, eraikin zaharra eraitsi baino lehen.

Iturria: *Irungo kaleen izenak.*  
José Monje García.

## Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Ana Grijalba  
[agrijalba@irunero.com](mailto:agrijalba@irunero.com)

Kirolak: Naiara Hernandez  
Lekuona

Euskara zuzentzailea:  
Xabier Kerexeta

Publizitatea:  
Sonia Garcia Olazabal,  
Amaia Terrazas

[sgarcia@baseclick.es](mailto:sgarcia@baseclick.es)

Argitaratzailea:  
Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:  
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -  
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

[www.irunero.com](http://www.irunero.com)





# Xabier Urresti: itsasoaz gozaraztea ogibide



Argazki denda batean lan egiten zuen hamabosgarren urtean eta itsasoa zuen zaletasunik behinena. Orduan eman zuen urratsa. Belaontzi bat erosi ostean zaletasuna ogibide bilakatu zuen. Duela hiru urte Olatua izenez bataiatu zuen bere bizitzako norabide berria. Harrez gero Eivissan eta Formenteran taldeentzako txangoak antolatzen ditu. Itsasoaren gozameanean murgiltzen du eskifaia.

Belaontziak 12 metro luze du, eta 8 lagunentzako tokia. Xabier Urrestik eguraldi epelarekin eta oporraldiak iristearrekin batera antolatu ohi ditu astebeteko lehenengo itsas txangoak. Ontzi osoa ere aloka daiteke.

Belaz nabigatzen jakiteko oinarrizko nondik norakoak irakasten die nabigatzaileei eta, jakina, kalaz kala naturaz gozaten ibiltzen dira. Horiexek, oporraldiko jarduera nagusiak. "Eskifaia erabakiaren arabera programa egin ohi dugu: piraguan buelta bat eman, urpean ibili, arrantza egin... Norbaitek Cabrerako uhartera joan nahi badu, aukera hori ere badugu", azaldu du Xabierrek.

**Elkarbizitza eta lasaitasuna**  
Itsasontzian bertan sukaldatu eta lo egiten dute bidaiariek. Hartara, txandaka antolatzen dituzte eginbeharrak. Esperientzia bizitzera deliberatzen

diren gehienak euskaldunak dira, gurean eta ingurumarietan bizi den jendea. "Beti ez dute elkar ezagutzen, baina ederki moldatzen gara" dio Olatuako arduradunak. "Nik bidaia baten ondoren gogoratzen dudana da lagun baren barrak eta giro lasaia. Jendeak, eguneroko ohikeriatik ateratzean, txipa aldatzen du. Ilunabarrean eguzkia sartzen ikustea garagardo bat hartzen ari garela, ur gardenetan murgiltzea edo izurdeak ikustea... hori preziorik ez duen luxua da!"

**Itsas barnetegia eta yoga**  
Olatuak iaz lehenengo itsas barnetegia antolatu zuen: irakasle bat bost ikasleekin 24 orduz euskaraz aritu ziren txangoaz gozaten zuten bitartean. Aurten, horretaz gain, beste esperientzia berri bat eskaintzen du. "Ekainaren bukaeran yoga eta stand up paddlea uztartuko ditugu ibi-

ladian. Horretarako, taula gaineko yogan aditua den irakasle bat izango dugu belaontzian. Inoiz probatu ez duenak ere etortzeko aukera dauka".

Argazkilaritzarekiko zaletasunari jarraiki, Xabierrek argazki lehiaketa antolatzen du, ikusitakoaren eta biziakoaren oroigarri. Saria, berriro astebetetz eskafaiako kide izatea.

[www.olatua.com](http://www.olatua.com)



1.-Es Vedráko Parke Naturala.  
2.- Ilunabarra konpainia onean.  
3.- Urpekariak, hondoa esploratzen. 4.- Izurdeak.

## Pakea Bizkaia proiektua

Iaz Xabier Urrestik Unai Basurko nabigatzaile profesionalaren Pakea Bizkaia proiektuan parte hartu zuen. Ingurumenarekiko kontzientziazioa eta nabigazioaren inguruko hezkuntza ditu helburu nagusi. Joan den urtean belaontziko itsas-zeharkaldia antolatu zen Antartikara, eta Xabierrek bigarren etapan esku hartu zuen: Argentinako Bahía Blancatik Antartikarainokoa, hain zuzen. Bere zeregina argazkiak ateratzea eta bideoa grabatzea izan zen. Berriki dokumentala ETBn eman dute.



943 64 17 10  
[www.endanea.com](http://www.endanea.com)

Jardineratan eskaintze zabalak, lurrak, ongamiak, substratuak, lorategirako osagarriak, sasoko landareak, lanabeak eta askoz gehiago.

**ZURE LORATEGI, TERRAZA EDO BALKOIRAKO BEHAR DUZUN GUZTIA**

Jaitzubia 40, Hondarribia - Gipuzkoa

**BERRITZEKO ETA APAINTZEKO GARAIA DA**      **JARDINERA LORETSUAK, BALKOI, TERRAZA ETA LORATEGIAK APAINZEKO**



**CASER ANAKA**

Anaka kalea, 8 Irun  
943 66 77 88



Irungo erdialdean kokaturik dagoen egoitza honek 11 urteko ibilbidea bete du jada. Esperientzia zabala du zaharren zaintzan eta arreta zerbitzuetan. Familia giroko egoitza da, goxoa eta atsegina. Gure xedea bertan bizi direnak etxean bezala sentitzea da. Areto handiak ditu, eta terraza ederra teilatuan.



## AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

**EGONALDI MOTAK**

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak
- Familiari atsedean emateko egonaldiak
- Errehabilitazioa, ebakuntza ondorengoak eta gaixoaldiak.
- Alzheimer gaixotasuna eta bestelako dementziak dituztenetzako egonaldiak.

**CASER BETHARRAM**

Zubieta, 161 Hondarribia  
943 64 71 69



Caser Betharram Irun eta Hondarribiaren arteko mugan dago, Irungo hirigunetik 5 minutura. Eraikuntza berezia da, modernoa, espazio zabalekoa eta argitsua. Arreta beharren araberrako modulu txikietan banatuta dago, eta gune berdez inguratua. Zaintza soziosanitariarioa zentroaren hotel izaerarekin ongi uztarturik dago eta arreta punta puntakoa da.

**ARRETA GOXOA ETA  
PERTSONALIZATUA**

Caserren aitona-amonen ongizatea bermatzen dugu. Horretarako primerako azpiegiturak ditugu, eta perfil guztietako profesionalak. Caserren harago goaz: egoiliarrekin eta haien familiekin etengabe harremanetan egoten gara egokitzapena eta ongizatea hobetzeko. Zaintza ezinbestekoa da, baina Caserren errespetuz eta goxotasunez egiten dugu lan. Egoiliarren beharrianak entzunda, arreta oso pertsonalizatua lortzen dugu.

**ZERBITZUAK**

- |                                     |                                |
|-------------------------------------|--------------------------------|
| - Medikua                           | dentista                       |
| - Botika                            | - Logopedia                    |
| - Erizaintza                        | - Harrera                      |
| - Psikologoa                        | - Garbiketa                    |
| - Gizarte-langilea                  | - Arroparen garbiketa          |
| - Terapia okupazionala              | - Sukaldea                     |
| - Fisioterapia eta errehabilitazioa | - Mentenua                     |
| - Animazio soziokulturala           | - Ileapaindegia                |
| - Nutrizioa                         | - Jostuna                      |
| - Podologia                         | - Elizkizunak - Meza           |
| - Odontologia eta                   | - Laguntza teknikoen kudeaketa |

**EGONALDI EZBERDINAK DITUGU AUKERAN:** familiak atsedean har dezan aldi batez gera daitezke aitona-amonak gure egoitzetan. Errehabilitazio fisikoa behar denean edo ebakuntza baten ondorengo susperraldian zehar ere bai. Behar guztietara molda gaitzke.





# Plaiiaundiko Parke Ekologikoa, nazioarteko altxor naturala

1998an berreskuratu zen Txingudi itsasertzeko hezegune hau, eta azken urteetan nazioarteko garrantzia lortu du. Etorkizunerako helburuen artean daude bertako kirol instalazioak kanpora ateratzea eta Irun eta Hondarribiko padurak elkartzeara.

Txingudi ekoetxeak Plaiiaundiko Parke Ekologikora ongi etorria egiten digu. Etxetik hain gertu dugun babes bereziko eremu honek 24 hektarea ditu. Hala ere, hedadura txikia ez da oztopo izan Txingudiko nazioarteko aintzatespena lortzeko; izan ere, Natura 2000 Sarean Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) eta Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu dute. Gainera, Ramsar Hitzarmenaren arabera, Nazioarteko Garrantzizko Hezegune da.

#### Bisita ugari

Aspaldi honetan hezeguneak lortutako aipamen hauek biztanleen arreta erakarri dute, eta hori parkeak jasotzen duen bisitari kopuruan nabaritu da. Nerea Azpeitia parkeko teknikariaren arabera, "jende asko etortzen da etxetik gertu duen altxor natural hau ezagutzera. Urtean 45.000 bisitari jasotzen ditugu. Horietatik 17.000

informazio zentritik igarotzen dira, eta 3.000 lagun ikastetxeetako ikasleak dira". Azken hauentzat Ekoetxeako arduradunek Ingurumen Hezkuntza programa berezia dute. "Gure ekintza guztiak biodibertsitatea erakustera zuzenduta daude. Horretaz gain, Plaiiaundiko parkeak duen garrantzia azaltzen diegu, baita hegazti migratzaileak erakusten ere".

1998. urtetik hona 265 hegazti espezie desberdin ikusi ahal izan dira hezegune honetan. Datu hau oso esanguratsua da, Euskal Autonomia Erkidegoan ikusten diren hegaztien %74 Txingudiko Badian ikusi baita. Nerea Azpeitiarentzat lorpen hau oso garrantzitsua da "Plaiiaundi herri erdigunetik oso gertu baitago eta kanpoaldetik soinu ugari iristen baitira".

#### Atletismo pistak arazo

Plaiiaundiko Parke Ekologikoaren heda-

pena oztopatzen duen beste arazo bat bertako kirol instalazioak dira. "Bisualki eta soinu aldetik oztopo handia dira. Hoberena atlestimo pistak beste leku batera eramatea litzateke, baina prozesu hori martxan dago oraindik".

Nahiz eta hainbat oztopori aurre egin behar izan, parkeak gertuko bisitariak erakartzen ditu. "Gehienak Gipuzkoatik etortzen dira, Bidasoa eskualdetik, hain zuzen ere. Irun, Hondarribia eta Hendaia biztanleak etxetik gertu duten ingurumen naturala ezagutzeko irrikatan daude; are gehiago, azken urteotan Iparraldeko bisitarien igoera nabaria izan dugu".

#### Txin Badia proiektua

Babes eremu honentzat guztiz garrantzitsua da herrialde mugakideen artean egindako lankidetzaren proiektua. Txin Badia izena duen proiektu honek, eremu hauen

erabilera publikoari eta kontserbazioari begira, lan-sare bat eratzea du helburu. Europatik jasotako diru laguntzekin hobekuntza ugari egin dituzte parke ekologikoko arduradunek. "Informazio zentroko erakusketa berritu dugu, martin arrantza-learentzat habia batzuk egin, bideak eta zubiak konpondu eta anfiboentzat hainbat urmael eraiki ditugu".

Etorkizunera begira, erronka nagusia da Txingudiko padurak babesten dituen plan bereziko ekintza eta proiektu guztiak aurrera eramatea. "Irun eta Hondarribiko padurak elkartzeara, kirol instalazioak kanpora ateratzea eta, hori lortzean, zonaldea berritzea dira gure helburu nagusiak. Horretaz gain, Txingudiko paduraren barnean sartzen diren hiru irlak berreskuratu nahiko genituzke".



- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

[www.kineesis.net](http://www.kineesis.net)

[www.k-stretch.com](http://www.k-stretch.com)

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640







1.- Donibane Garazin, abiatzeko unean, zakurrak pozez zorutzen.  
2.- Iruñetik hurbil. Zizur Nagusian.  
3.- Orreaga: Santiagora 790 km besterik ez!



4.- Errioxa; amaigabeko lautadak.  
5.- Ilunabar ederra Burgoseko herrixka batean.

## 1. ATALA

# Erromesaldia Santiagora

Egileak Santiago Bidea egin zuen martxoan. Bide frantsesa aukeratu zuen lehenbizikoz esperientzia ahaztezin hau bizitzeko. Guztira 920 km, Donibane Garazitik Fisterraraino, 29 egunetan, bere bi zakur bidelagun zituela, Thor eta Ruth.

Aurreneko atal honetara Donibanetik Leongo probintzian dagoen Mansilla de las Mulasera bitarteko kontakizuna ekarri du.

Urtetan nire ametsetako bat izan da; baina, arrazoi asko tarteko, bizitzak ez dit aukerarik eman. Udaberri honetan beharrezko denbora lortu nuen, krisiak herrestan ekarri didan lan eza dela eta. Ez naiz batere damutzen hartutako erabakiaz. Areago, noizbehinka Santiagorako norabidean abiatuko naiz, ibilbide ezberdinetatik. Bideak "engantxatzen" du, eta nola, gainera!

Elkarrekin partekatutako sentimendu bat, bizitzeko beste modu bat... sentitzeko beste era bat...

Nire zakurrak bidelagun izatea arazo zen aterpetxeetan lo egiteko orduan. Horregatik, aire zabalean, tenperatura baxuenetan ere lo egiteko egoki presatuta joan nintzen. Ostalarien jarrera bikaina izan zen, jator jokatu baitzuten, askotan zakurrekin batera lo egi-

ten utzi zidatelako, maiz terraza zein patioetan.

Nire hatua mendizale baten parekoa zen. Etxe guztia bizkarrean neraman; tartean, lumazko lo-zaku on bat, estalperik gabe lo egiteko, izarren pean, martxoaren hotzetan.

Ibilbidearen erdiak, ia Burgosera arte, antizikloi indartsu bat izan zuen ezau-garri nagusi, zeinak ia 13 eguneko eguraldi ona ekarri zigun, tartean uda girokoren bat ere bai.

Planteamendua apala izan zen. Ideia ona iruditu zitzaidan, antzinako erro-mesaren larrupean sartzeko era bat delako; alegia, bitarteko eskasak zitu- en erromes hura nola sentitzen zen esperimendatzeko modua zen.

Martxoaren 9an abiatu ginen Donibane Garazi herri xarmentetik. Azken egunetako elurteengatik Lepaederreko igarobidea (1430 m) itxita zegoen; beraz, Ibañetako mendatetik igotzea egokitu zitzaigun. Lehenengo etapa gogorra da, malda pikuegatik eta 25 kiloko motxilarengatik. Egun

batzuk behar izan nituen pisu hori eramaten ohitu arte.

Orreagan, aurreneko zigilua jarri zidatenean, poz aurpegia nuen: hasi berria!

Iruñerako jaitsiera zoragarria izan zen, baso handiak zeharkatuz eguzkiaren epelean.

Hiribura iristea izugarri gustatu zitzaidan. Orduan isuri nituen lehenengo malkoak. Jendeak bidetari buruz galdegiten zidan, eta zakurrak ikustean harrিতuta geratzen zen. Irribarreak ikusteak benetan aupatzen ninduen.

Hauxe bidaiaren giroa: Bide ona.

Anekdoten inguruan liburu bat idatz nezake, zein baino zein ederragoa.

Gares igaro nuen, Logoño, Burgos... nire irribarrea gero eta handiagoa zen. Santiago, gero eta hurbilago.

Astunena Burgos eta Palentziako lautada amaigabeak izan ziren, baina, poemak dioen bezala: ibiltari, biderik ez da, bidea ibiliz egiten da.

**Sonia Bañeza Fernandez**



Kalitatezko margo-lanak  
eta dekorazioa

- DENETARIKO MARGO-LANAK
- HORMA LAUTZEA
- LAKATZEAK ETA BERNIZATZEAK
- BAINUONTZIEN ETA AZULEJUEEN ESMALTATZEAK
- AROTZERIA
- ETXEKO KONPONKETA TXIKIAK:
  - Pertsianak
  - Ateetako heldulekuak
  - Entxufeak...
- . HEZETASUN ZIKINGUNEEN GARBIKETA

Zura lantzen dugu, opari oso pertsonalizatuak egiteko: izenak... edo bururatzen zaizuna

619 88 97 23  
943 63 11 58..  
Aranibar. Katea. IRUN

**Dekorazioa**



**Fatxadak**



**Fatxadak**



**Bainuontziak herritza**



**Zaharberritzeak**



**Opari pertsonalizatuak**





# XX. mendea: euskal sukaldaritza, goienean



Euskal sukaldaritzaren historiari eskaintzen ari garen tartetxo honetan, oraingoan XX. mendearen txanda dugu. Aro garrantzitsua euskal sukaldaritzarako, garai horretan kokatu baitzen munduko onenen artean.

XX. mendean euskal gastronomian eragin handia izan zuten bi gertakariak: Europan bizitako Mundu Gerrek eta, batez ere, Espainiako Gerra Zibilak. 1936-1951 bitartean errazionamendua indarrean egon zen, eta horrek biziraupeneko sukaldaritzaren berragerpena ekarri zuen; baina, aldi berean, egun ezagutzen dugun euskal sukaldaritza tradizionalaren ezaugarriak finkatu ziren: teknika zaindua, produktuarekiko menpekotasuna, urtaroei loturiko sukaldaritza, eta egoerari egokitzeko gaitasuna.

Euskal sukaldaritza herrian errotutako sukaldaritza izatetik mundu mailan ezaguna izatera pasa zen XX. mende amaieran eta XXI. mendearen hasieran, hein handi batean Euskal Sukaldaritza Berria mugimenduari eta Intxaurrendoko Gastronomiaren Asteari esker.

Francisco Francoren diktadura garaian jabetxeak eta sukaldariak inposaketa handiak zituzten menuak osatzeko orduan. Ez ziren garai onak espainiar eta euskal sukaldaritzarentzat. Transizio garaia iristean, 1976. urtean, ospatu zuten Gastronomiaren Lehen Mahai-Ingurua Madrilan.

Mahai-inguruak bi helburu nagusi zituen: Autonomia Erkidegoetako bertako sukaldaritza bultzatzea eta goi-mailako ardo-gintza sustatzea.

Ondorio argi bat utzi zuen Madrilgo bilera hark: berdin zen zaharra edo berria egitea, garrantzitsuena sukaldaritza ona egitea zen.

Hurrengo atalean muinean murgiltzen hasiko gara, frantziar sukaldaritzak euskal sukaldaritzan izandako eragina ezagutuko dugu, Euskal Sukaldaritza Berria mugimenduaren lehen urratsekin batera.

Gozatu euskal sukaldaritzaren historiarekin, gozatu gastronomiarekin eta gozatu bizitzarekin! On egin!

**GASTROFESTA**

Oraitz Garcia  
[gastrofesta.com](http://gastrofesta.com)

**BALIA EZAZU 700 € ARTEKO  
LAGUNTZA OFIZIALA**

**Aldatu zure bainera  
dutxa batengatik**

*Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa*

Zure bainera egungo dutxa talde batengatik aldatzen dugu.  
¡Guztia 2 egunetan!

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe**

Pelegrin de Uranzu, 9 (Urdanibia plazaren ondoan) - 20304 Irun

943 615 184 - 687 572 920

bainu.irun@gmail.com - [www.bainu.eu](http://www.bainu.eu)

Zarautz hiribidea, 86 - 20018 Donostia

943 561 652

**BAINU**



# Mylmuganeko aholkulariek mota guztietako errenta aitortzen egiten dituzte

Mylmugan Aholkularitza mugaz gaindiko gestioetan espezialista da. Bai Frantzia bai Gipuzkoan errentaren aitortzea egiteko garaian gaude. Mylmuganeko profesionalen taldea lanean buru-belarri dabil, beraz, bezeroek laguntzarik eta aholkurik onenak izan ditzaten. Frantziatik hurbil bizitzearen ondorioz, kasu mota anitz dago gurean. Hona nagusiak, modu xumean azalduta.

Mylmuganen Gipuzkoan edo Frantzian bizi direnen errenta aitortzen egiten dituzte, bai eta hartara beharrezko dokumentuak prestatu, izapidetu eta aurkeztu ere. Prozesu honetan guztian zehar, profesionalen aburuz, guztiz inportantea da bezeroarekin etengabeko harremana izatea eta arreta egokia eskaintzea.

**- GIPUZKOAN BIZI ETA FRANTZIAN ONDASUNAK DITUZTENAK.** Etxebizitza alokatuak dituztenak, adibidez. Aitortzea ez egoiliar gisa egin behar dute eta, ondoren, Gipuzkoan egindakoari egotzi.

Atzerrian ondasunak dituzten aitortzea aurkezteko epea joan den apirilaren 30ean amaitu zen.

**- FRANTZIAN BIZI DIRENAK** Gipuzkoako Ogasunak ez ditu Gipuzkoako egoiltzat ematen. Hauen barruan bi kasu daude:

**1.- MUGAZ GAINDIKOTZAT** jotzen direnak: enpresa pribatuetako soldatapeko langileak dira. Ezinbesteko baldintza da legeak ezartzen duen eremu geografiko jakin batean bizitzea. Halakoek Frantzian ordaintzen dituzte zergak, eta ez beste inon.

**2.- GAINONTZEKO EZ EGOILIARRAK;** adibidez, funtzionarioak edo autonomoak. Aldez aurretik, Gipuzkoako ez egoiliarrei dagokien zerga ordaindu behar dute. Ondoren, aitortzea Frantzian aurkeztu behar dute. Baldintza sorta berezi bat betez gero, aukerako erregimenari heldu ahal izango diote.

Autonomoek sozietate-zergaren inguruko dokumentuak aurkeztu behar dituzte, ezinbestez. Jardueraren bidez irabazitakoaren %28 Gipuzkoan ordaintzera derrigortuta daude. Ondoren, gorago aipatutako "aukerako erregimenari" heldu ahal izango diote.

Gipuzkoan bizi eta Frantzian lan egiten duten pertsonen kopurua gero eta ugariagoa da, krisiaren eraginez batik bat. Langile hauek Gipuzkoan egin behar dute aitortzea. Gomendatzen zaie oso kontuan hartzea Frantzian zerga ordaintzen duten kontzeptu guztiek ez dutela Gipuzkoan ordaintzen. Beraz, kasu honetan daudenei euren aitortzea berriskuttea gomendatzen zaie, behar baino gehiago ordain ez dezaten.



Mylmuganeko Ane Hernández Mendiluce, Leire Gil Isla eta Jessica Rojas Parra.

## Aitortzen egutegia



- GIPUZKOAN errentaren aitortzea egiteko epea apirilaren 13an hasi zen eta ekainaren 25ean bukatuko da.

- FRANTZIAN paperean aurkeztu daiteke maiatzaren 20ra arte. Internet bidez, ekainaren 10era arte, eta ez egoiliarrei ekainaren 16an amaituko zaie epea.

### Mugaz gaindiko aholkularitza

MyLmugan  
aholkulariak

Ficoba  
Iparralde  
hiribidea, 43.  
IRUN

t 943 537 720  
f 943 116 014  
m 649 014 096

www.mylmugan.com



# “Agente publikoak eta pribatuak bide beretik joatea ezinbestekoa da gure eragina sakonagoa izateko”

Irun Sasoiaren foroaren bigarren edizioa antolatu da aurten Ficoban. Jarduera fisikoa sustatzea eta pertsonak aktibatzea helburu duen topaketa honetan erakunde publikoko eta pribatuetako agenteak bildu dira. Foro honi eta gure hirian antolatutako kirol ekimenei buruz mintzatzeko aukera izan dugu Iñaki Iturrioz Irungo Udaleko Kirol Ekintzen arduradunarekin.

## - Irun Sasoiaren foroaren bigarren edizioa izan da aurtengoa. Zeintzuk dira topaketa honen helburu nagusiak?

Erakunde publikoek sustatzen ditugun politikak partekatzea eta erakundeen arteko lana sustatzea dira gure erronka nagusiak; izan ere, elkarlan honetatik ideia, proiektu eta ekintza oso interesgarriak atera ohi dira.

## - Kontaiguzu: zeintzuk dira forotik ateratako proiektu azpimagarrienak?

Ikas Sasoi programa, adibidez, bertatik atera da. 12-16 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta dago eta gaztetxoek jarduera fisikoa praktikatzeko 23 ekimen jarri dira abian. Agente pribatuekin egindako elkarlanari esker, Irunen dagoen kirol eskaintza postaz bidali diegu etxera. Agente publikoak eta pribatuak bide beretik joatea ezinbestekoa da, gure eragina sakonagoa izateko.

## - Irundarrak kirolariak al gara?

Datuen arabera, gaur egun, 3.000 irundar kiroldegietako ikastaroetan izena emanda daude. Datu horri gimnasioetara maiz jotzen diren bazkideen datuak eta beren kabuz kirola egiten dutenenak gehitu behar dizkiogu. Bestalde, korrika egiten duten emakume gero eta gehiago dago.

Hala ere, emakumeengan jarduera fisikoa sustatzen jarraitu behar dugu. Lehentasun bat izan behar du datorren urteetan.

## - Zeintzuk dira irundarren artean arrakasta gehien duten kirolak?

Inkesten arabera, gehien egiten den jarduera fisikoa ibiltzea da. Haren atzetik, gimnasia, korrika, igeriketa eta areto jarduerak daude. Mendizaletasuna, ehiza eta arrantza ere oso ekimen arrakastatsuak dira, baina haien maiztasuna ez da bestea bezain finkoa.

## - Garrantzitsua al da kirolaren praktika adin goiztiarretik sustatzea?

Bai, noski. Haurtzaroan aktiboak diren haurrek inaktiboak direnek baino aukera gehiago dute helduaroan kirola praktikatzeko. Adin goiztiarrean kirolaren praktika sustatzeko Sendia Sasoi programa jarri dugu martxan. Horren bitartez, haur txikiak dituzten familietan jarduera fisikoa areagotu nahi dugu.

## - Udarrak kirol ekintza ugari prestatu al duzue?

Urtero legez, Uda Kirola programa izango dugu. Bertan, Irungo kirol eskaintza zabaldu jaso eta era errazagoan eskaintzen da. Udan denbora libre gehiago dago eta

## Iñaki Iturrioz – Irungo Udaleko Kirol Ekintzen arduraduna



eguraldia hobea izaten da, eta horiei esker kirol jarduera areagotu egiten da. Bestalde, aurten ere pertsona elbarrituentzako eskaintza zabaldu nahi dugu, kirola praktikatzeko aukera gehiago izan dezaten.

## - Etorritunera begira, zeintzuk dira zuen erronkak?

Zerbitzuak eskaintzen dituen erakunde bat izatetik irundarrak aktibo bihurtzen laguntzen duen erakunde bat izatera iritsi nahi dugu. Horretaz gain, osasun eta kirol zerbitzuak elkarlanean aritzeko programak sustatu nahi genituzke; jarduera fisikoa politika guztien barne egon behar dela uste baitugu.



- Indoor zikloa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tonifikazioa
- Tai chi
- Pilates
- Defentsa pertsonala
- Step
- Kick boxing
- Zumba
- Brasiliar Jiu Jitsu
- Muskulazioa

Bazkide  
nahiz bazkide  
ez direnentzat  
**MASAJEA**





Ezkerretik eskuinera, Markel Alberdi, Oskitz Aguilar, Rufino Regueira eta Yeraí Lebon igerilariak. Erdian, klubeko neska talde bat, eta eskuinean, waterpolo taldeko zenbait jokalarik.

## Bidasoa XXI taldea, igeriketaren gailurrean

1988an sortu zen Irungo igeriketa talde hau, eta harrez geroztik dominak eta aipamenak bata bestearen atzetik etorri dira. 250 igerilari ditu gaur egun bere lerroetan Bidasoa XXI igeriketa taldeak. Estatu mailan erreferente den talde honen etorkizuneko helburu nagusiak honako hauek dira: egunero hobetzen jarraitzea eta orain arteko emaitza onei eustea.

Bidasoa XXI taldea igeriketa munduan erreferente bat da Euskadin eta Estatuan. Azken urteetan igerilariak eta entrenatzaileak egindako lan bikainari esker, eskarmentu handiko klub hau igeriketaren maila gorenean dago. Emakumezko igerilariak zerikusi handia izan dute horretan. Hala ere, egun, gizonezkoen sekzioa emakumezko-

ena baino emaitza hobeak lortzen ari da.

### Sekzio berrizalea

Igeriketa arloa jorratzeaz gain, nahiko berria den waterpolo sekzioa ere badu taldeak. Javier Iguñiz klubeko zuzendari teknikoak primeran gogoratzen ditu haren hastapenak: "Orain dela hamar bat urte, igerilari ohi batzuek waterpolo taldea sortzea erabaki zuten, ur kirolekin harremana ez galtzeko. Uste zutena baino arrakasta handiagoa izan zuen haien ideiak eta Bidasoa XXIen barne sartzea erabaki zuten, dena hobeto koordinatu ahal izateko". Nahiz eta hasieran mutilen sekzioa soilik izan, aurrerago neskek ere euren taldea sortu zuten.

### Igerilari gazteen harrobi

Igeriketa sekzioari dagokionez, Bidasoak igerilari lehiakorak ditu: Markel Alberdi, Yeraí Lebon eta Oskitz Aguilar, besteak beste, eta denboraldi honetan haiek lortutako emaitzak ezin hobeak izaten ari dira. "Euskal Herriko Kopa irabazi dugu, Markel Alberdi Europako Txapelketarako sailkatu da eta Espainiako Txapelketan podiumera igotzeko aukera izan dugu. Bestalde, emakumeen sekzioan belaunaldi berritzailea gertatzen ari da oraintxe bertan" dio Javier Iguñizek.

Yeraí Lebonek, Bidasoa XXI igeriketa taldeko gizon indartsuenetakoa, Espainiako Udako Txapelketan denborak hobetzea du denboraldi honetako helburu nagusietako bat. Nork esango zion futbola gustuko zuen haur hari hain urrun iritsiko zela? "Igeriketan hasi nintzenean, ez zitzaidan gehiegi gustatzen. Futbola nahiago nuen. Baina



denboraren poderioz, klubeko giroa eta bidaiak zirela eta, ikaragarri gustatzen hasi zitzaidan". Markel Alberdi taldekidearen hastapenak ere oso bereziak izan ziren. "Hainbat kirolekin txarra nintzen eta kirol indibiduala zelako hasi nintzen igeriketan. Bertan ez nuen inor oztopatzeko. Ni bakarrik erlojuaren kontra lehiatzen nintzen eta pixkanaka-pixkanaka mundu honek erakarri ninduen".

Iaz Munduko Txapelketan egondako igerilari gazte honek oso argi du bere hurrengo erronka: "Joko Olinpikoetarako sailkapena lortzea nahiko nuke". Javier Iguñizen ustez, igeriketa eskari handiko kirola da, "bizitzarako oso baliagarriak izango zaizkizun balioak bereganatzen baitituzu". Markel Alberdi ere honekin bat dator. "Igeriketa bizi estilo bat da. Diziplinatua eta umila izaten erakusten dizu".

Gauzak horrela, etorkizunera begira Euskadin eta Estatuan puntako igeriketa taldea izaten jarraitu nahi du Bidasoa XXI igeriketa taldeak.

### Informazio gehiagorako:

Web orria: [www.bidasoa21.org](http://www.bidasoa21.org)

Telefona: 943.63.02.11

## BAKAILAOA DASTA EZAZU





## Elatzeta LH 1. zikloa



# Jostamendi



[www.jostamendi.com](http://www.jostamendi.com)

- Jostailuak
- Mozorroak
- Motxilak

JOSTAILU GUZTIAK:  
MODAKOAK ETA KLASIKOAK  
SALNEURRI MERKEENAK

Prim, 59. Tel: 943 455300 Donostia  
Letxunbarro, 86. Tel: 943 457510 Irun

- Puerikultura ttikia
- Paseatzeko silitak
- Sehaskak

- Haur kotxeak  
GIPUZKOAKO  
ERAKUSKETARIK HANDIENA

Easo, 51. Tel: 943 470244 Donostia  
Artaleku, 3. Tel: 943 638223 Irun



Zure jaioberria  
zaintzen dugu



## ESNE BELTZA

Euskal Herrian sortutako musika talde bat da. Taldea sortzeko ideia Xabi Solanok eduki zuen, Fermin Muguruzarekin egindako biran. Izena Fermin Muguruzak berak proposatutako paradoxa batetik dator: abeslari zuriek musika beltza interpretatzea.

**Taldekideak** hauek dira:

- Xabi Solano: ahotsa eta trikitia
- Sergio Ordoñez (Patxuko): ahotsa
- Jon Mari Beasain: gitarra eta panderoa
- Aitor zabaleta: baxua
- Pello Gorrotxategi: teklatura eta kora
- D.Z. (DJ Zigor): D.J.
- Iban Zugarramurdi: bateria
- Haritz Lonbide: tronpeta
- Jon Elizalde: tronboia

Beste talde askotan ibilitakoak dira musikari hauek (Fermin Muguruza, The Solanos, 4 Itzal, Etzakit, Joxe Ripiau, Baldin Bada, Su Ta Gar, Karidadeko Benta, Mal de Ojo, Ttak, Selektakolektiboa) eta haien nolabaiteko azterna somatzen zaie. Xabi Solano, Joan Mari Beasain eta Aitor Zabaleta **Etzakit** taldean aritu ziren elkarrekin.

Talde honen musika reggae, ska eta hip-hopen nahaste bat da, trikitiarekin lagunduta, baina soul, rock, folk, eta kumbia bezalako estiloen eraginak ere biltzen ditu.

Elkarlan piloa dituzte disko guztietan. Taldearen abestien hitz gehienak Jon Garmendia "Txuria" k egin ditu, baina hainbat lankidetzaren laguntza izan dituzte, Jon Maia eta Maialen Lujanbio bertsolariena, adibidez.



### DISKOGRAFIA

- *Made In Euskal Herria* (Gaztelupeko Hotsak, 2008)
- *Noa* (Baga Biga, 2010)
- *Freedom 3 kolpetan* (Baga-Biga musika ideiak & Esne Beltza Records, 2011): DVD (Freedom)

batez gehi CD audio (3 Kolpetan) batez osatua dago.

- *Gora* (2013)

**NOA:** Bigarren album honek 17 abesti ditu eta horietako 3 zenbait ekimen babesteko sortuak izan ziren: «Sortzen», propio Gazteherria mugimendurako egina, Kilometroak egunerako «Hona bostekoa» kantua eta Donostiako Piraten «Revolutions piratak».

Diskoaren grabazioak hainbat tokitan eginda daude 2009an eta 2010ean zehar: Jamaika, Beirut, Japonia, Irun, Bartzelona, Ereñozu, Garate estudioak... Disko honetan ere lankidetzaren ugari izan dituzte, herrialde ezberdinetakoak.

**"Hona bostekoa".** Abesti hau 2010eko Kilometroarentzat egina da. Hitzak euskarari buruzkoak dira eta kanta honen bidez euskara bultzatzeko mezua eman nahi dute.

HONA BOSTEKOA, ONA! HONA BOSTEKOA, ONA!

EUSKARA BABESTEKO, EUSKARAZ SOLASTEKO ETA EUSKARAZ JOLASTEKO ETA EUSKARAZ BIZITZEKO.

**Toki Alai BHI 2. maila  
Ainhoa Susperregui eta  
Cristina Jimenez**

## TELEBISTA ETA SARE SOZIALAK



Orain dela urte pare bat arte, telebista programa baten arrakasta ikusleen kopuruaren arabera neurtzen zen. Hartara, zundaketa, audimetroa, share,

rating eta halako teknizismoak barra-barra entzuten genituen ikuskizun handien harira, futbol partidu bat zela, Eurovision zela, Gran Hermano eta halako programak zirela.

Aspaldi honetan, aldiz, kontzeptu berri bat txertatu zaigu: share sozial delakoa. Izan ere, telebista programa baten ikusleek sare sozialetan jarduteko nolakoa eta norainokoa neurtzen duen heinean, haren arrakastaren berri ere nolabait eman dezake.

Dagoeneko arrunta da gure pantailen bazter batean twitter-hashtag bat agertzea, ikusten ari garen programari buruz iritzia ematera gonbidatzen gaituena, zenbat eta ikusle parte-hartzaile gehiago eta programa-produktuaren arrakasta handiago delakoa. Batzuetan, erakartzeko luzatzen diguten amua geure ekarpena telebistaren azpilduran agertzea izaten da, ikusle guztiak zeinen burutsuak garen jakin dezaten.

Egia esatera, sofan agonduta dagoen ikuslearentzat, esperientzia osoagoa da. Programa eteten duen publikitate sorta abagune egokia izan ohi da twitter bidezko komentarioak egiteko eta beste ikusleen burutazioekin dibertitzeko. Batzuetan, horretarako denbora tarte eskas eta guzti geratzen zaigu...

Alegia, ez hain aspaldi biharamun goizean bulegoko kafe makinaren aurrean egiten zen hura orain gertatu ahala egin dezakegu, sakelako telefonoa eskuan dugula. Eta telebista-kateak, pozarren, zein programa eskaintzen jarraitzeko beste neurketa modu berri bat aurkitu dute eta.

**Pablo Moratinos**

Marketing online-aholkularia  
3yMedia Comunicación Digital



zure enpresari  
internetetik zabaltzen  
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net



# Musikirun, maketa onenen bila

Musikirun maketa lehiaketaren IV. edizioa bertan dugu, gazteen artean sormena pizteko musikaren munduan bidea jorratzen laguntzeko. Finalistek oholtzan euren lana erakutsiko dute, eta irabazleek, gainera, zenbait kanturen grabaketa izango dute saritzat.

Antolatzaileak maketa egarri dira jada; maiatzaren 23ra arte onartuko dituzte maketak.

Musikirun Udaleko Gazteria Arloaren jardura nagusietako bat da, eta aurtengo Gazteartean programako lehenengoetarikoa bat. Lehiaketa talde eta bakarlarientzat aukera bat da, lana jendaurrean erakusteko eta euren ibilbide musikalean bultzada bat lortzeko.

#### Saillkapen fasea

Saillkapen faseak lehiaketaren hasiera izango da. Gehienez ere 15 maketa hautatuko dira eta horiek maiatzean eta ekainean zehar oholtza gainean jotzeko parada izango dute. Behin emanaldi guztiak amaituta, finalistak aukeratuko dira, eta haiek ekainaren 25ean kontzertu bat eskainiko dute, sanmatzietako jai egitarauaren barruan. Egun horretan bertan jakinaraziko da Musikirun 2014ko irabazlea zein den.

#### Baldintzak

Bakarlariek zein taldeek parte hartu ahal izango dute, euren jatorri geografikoa eta musika estiloa edozein dela ere. Taldeen kasuan, kideen batez besteko adinak ezin

du 30 urte baino gehiagokoa izan (2014ko abenduaren 31n).

Lehiakide bakoitzak gutxienez bi eta gehien jota bost kantu aurkeztu ahal izango ditu, hitzei eta musikari dagokienez originalak izaki.

#### Formatuak

- Maketak posta arruntez, CD formatuan helbide honetara bidal daitezke: Irungo Udala. Gazteria Arloa. Urdanibia plaza, 6. 20304 IRUN

- Posta elektronikoz, mp3 edo wma formatuetan [gazteria@irun.org](mailto:gazteria@irun.org)

- USB batean Gazte Informazio bulegora ere eraman daitezke (Foruen karrika, 2).

#### SARIAK

1. Mini LP baten grabaketa (5 kantu)
  2. Maketa baten grabaketa (5 kantu)
  3. Single baten grabaketa (3 kantu)
- GAZTEA SARIA: 400 € musika materiala erosteko. Web orrian bozka gehien lortzen dituenak irabaziko du.



Behean, iazko finalistetako lau: Elisabeth Sanz, Melmac, Sangre de Mono eta Kasernarat.



## GB EVENTOS

Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

[www.gbeventos.es](http://www.gbeventos.es)

Enpresa ekitaldiak

Erakunde ekitaldiak

Gai baten inguruko ekitaldiak

Jai herrikoiak

Ezkontzak

Urteurrenak

Oscar Portugués  
+ DJ Bizano

Ekitaldiak zuk nahi duzun erara  
Zer behar duzu?

[WWW.CASATE EN HONDARRIBIA .COM](http://WWW.CASATE EN HONDARRIBIA .COM)



**Maiatzaren 17an**
**Dantza Amaia KZn**

20:00etan, Oteizaren kaxa beltza izenburuko ikuskizuna eskainiko dute Verdinik eta Kresalak. Euskal dantzaren ikuskizun berri bat, Jorge Oteizaren obrara bideratuta.

**Maiatzaren 18an**
**Dantza**
**Meakan**

12:00etan, Irungo Bilera, auzoko plazan, Ibarla Meaka Dantza Taldeak antolatuta.

**Maiatzak 20 - ekainak 1**
**Erakusketa**
**Laboral Kutxa**

Makila Elkarteen lanak.

**Maiatzaren 20an eta 27an**
**Bertso-saioak**
**Amaia KZn**

18:00etan, Gipuzkoako Bertsozaleen Elkarteak, Irungo ikastetxeek eta Udalak antolatuta. Sarrera, doan.


**Maiatzaren 21ean**
**Txangoa**

Argoia Elkarteak antolatuta, txangoa Lizarrara. Nahi duen orok parte har dezake.

Tel: 943 620 621.

[www.euskalnet.net/argoiak](http://www.euskalnet.net/argoiak)

**Maiatzaren 23an**
**Antzerkia**
**Amaia KZn**

20:00etan, Nagusilan Antzerki Taldeak *Nuestro pueblo* lana aurkeztuko du.

**Maiatzak 23 - ekainak 15**
**Erakusketa**
**Amaia KZn**

Carlos Las Herasen margolanen erakusketa (in memoriam).

**Maiatzaren 24an**
**Kontzertua**
**Kabigorri**


19:30ean, Los Bonitos del Norte taldearen kontzertua.

**Maiatzaren 24an**
**Antzerkia**
**Amaia KZn**

20:00etan, Atalaya konpainiak (Antzerki Sari Nazionala 2008) *Madre Coraje* antzeztuko du.


**Maiatzaren 24an**
**Kontzertua**
**Tunk aretoan**

20:45ean, V. HARD IS THE ROCK Festibala. DORIA + CUARTO OSCURO + EVERLEVEL + HYRONIKA + INNPUP.

**Maiatzaren 25ean**
**Azoka**
**Zabaltza plazan**

Merka2dasoa izeneko bigarren eskuko objetuen azokak egoera onean dagoen materiala erosteko, saltzeko eta trukatzeke aukera ematen du. 10:00etatik 14:00etara. Txingudiko Zerbitzuek antolatuta.

**Informazioa:** [www.txinzer.com](http://www.txinzer.com) edo 902 119 383

**Maiatzaren 28an**
**Sukaldaritza tailerra**
**Argoia Elkarte**

17:00etan, Marokoko sukaldaritza tailerra.

**Maiatzaren 28tik 30era**
**Zinea**
**Amaia KZn**

19:30ean, Ur Azpiko Zine Zikloa.

**ALARDEALDIA 2014**

**9:00 Ibilbidearen Hasiera** Ama Xantalen kalean.

Ibilbidean zehar: trikitixak, txarangak, txu-txu trena, taloak, dantzariak, haur jolasak, buruhandiak eta abesbatza

**14:00 HERRI BAZKARIA** Ficoban. Helduak, 20 €, haurrak, 10 €

**16:30 ETIK 22:30 ERA FICOBAN:** Taberna, dantzarien ikuskizuna, eskulan tailerrak, puzgarriak, paseoak poniz, ibilbideak Segwayz, txokolatada, zientziaren jaia eta pizza banaketa.


**EKAR TELEINMOBILIARIA**
**943 628 333**
[info@ekarinmobiliaria.com](mailto:info@ekarinmobiliaria.com)

**IRUN** Erref: 04202

180 m<sup>2</sup>, 4 logela (2 bikoitz, 2 bakun), 2 bainugela, komuna, egongela, sukaldea, jangela, terraza, balkoia, trastelekua, gasezko berogailua, tximinia txikia; kanpora, E/M orientazioa, eguzkitsua. Altzariduna. Garaje itxia 2 autorentzat. Kirol instalazioak.

**Prezioa: 1.000 €**

**IRUN** Erref: 04205

Etxebizitza erabat zaharberria. Azalera: 62 m<sup>2</sup>. 2 logela bikoitz, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua; kanpora, ekialdea / mendebaldea orientazioa, eguzkitsua.

**Prezioa: 135.000 €**  
(22.462.110 pta)

**IRUN** Erref: 04187

Azalera: 60 m<sup>2</sup>. 2 logela (bikoitz 1, bakun 1), bainugela 1, sukaldea, egongela, balkoia, igogailua, gasezko berogailua; kanpora, hegoaldera, eguzkitsua.

**Prezioa: 156.000 €**  
(25.956.216 pta)

**IRUN** Erref: 04186

Azalera: 52 m<sup>2</sup>. 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela; kanpora. Prezioa negoziatu daiteke

**Prezioa: 80.000 €**  
(13.310.880 pta)

**HENDAIA** Erref: 03323

Hondartzan, lehen ilaran. Azalera: 30 m<sup>2</sup>, logela 1, bainugela, komuna, egongela sukalde amerikarra, terraza, igogailua, berogailu elektrikoa; kanpora, hegoaldera, eguzkitsua.

Aukeran: aparkaleku estalia.

**Prezioa: 140.000 €**  
(23.294.040 pta)

**HENDAIA** Erref: 04063

Erabat zaharberria. 45 m<sup>2</sup>, logela bikoitz bat (bi egiteko aukera), bainugela, egongela, sukaldea, ganbara, berogailu elektrikoa; kanpora, mendebaldera, eguzkitsua, bistak.

**Prezioa: 159.000 €**  
(26.455.374 pta)

**HENDAIA** Erref: 03511

Hendaiako gainetan, berriki eraikitako inguru lasaian. 65 m<sup>2</sup>. Bi logela bikoitz, bainugela, komuna, 19 m<sup>2</sup>ko egongela, sukaldea, 10 m<sup>2</sup>ko terraza, bistak, 3 armairudun trastelekua, berogailua; oso eguzkitsua. Aparkalekua.

**Prezioa: 190.000,00 €**  
(31.613.340 pta)

**IRUN** Erref: 03878

106 m<sup>2</sup> bi solairutan, 5 logela (2 bikoitz, 3 bakun), egongela, sukalde lorategira irteeraduna, bainugela, gasoleozko berogailua; eguzkitsua. Aparkalekua kanpoan 3 autorentzat, arrapaladuna. Sotoa eta txokoa.

**Prezioa: 350.000 €**  
(58.235.100 pta)

**IRUN** Erref: 03898

80 m<sup>2</sup>, 3 logela (2 bikoitz, bakun 1), bainugela, komuna, egongela eta sukalde handia, balkoia, igogailua, armairuak; hegoaldera, eguzkitsua. Zerbitzu guztietatik eta Pinudiko parketik hurbil. Minusbaliatuentzako sarbidea.

**Prezioa: 190.000 €**  
(31.613.640 pta)

**Antzerkia euskaraz**

**Lana:** Beldartxo jatuna  
**Noiz:** Maiatzaren 31n  
**Ordua:** 17:00etan  
**Konpainia:** Didau  
Haurrentzako ikuskizuna.







**AURREMATRIKULA:**  
maiatzak 27tik, ekainak 6ra  
biak barne

**MATRIKULA:**  
uztailak 9tik, 16ra  
biak barne

## **ATE IREKIAK**

Erdi Maila: **maiatzak, 19**  
Goi Maila: **maiatzak, 20**  
Ordua: **18:30**



IDASOA



Elizatxo, 10  
20303 IRUN (Gipuzkoa)  
Tel. 943 666 010  
Fax. 943 615 380

[secretaria@fpbidasoa.org](mailto:secretaria@fpbidasoa.org)

[www.fpbidasoa.org](http://www.fpbidasoa.org)

## 2014 / 2015 IKASTURTEA ZIKLO ESKAINTZA EGUNEZ ETA GAUEZ\*

Hizkuntza eskaintza A, D eta eleanitza

**Gaztelania-Euskera-Ingelesa-Frantsesa**

### **GOI MAILA**

**\*FABRIKAZIO MEKANIKOKO  
PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA**

**FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA**

**DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA**

**OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK**

**SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA  
AUTOMATIZATUAK**

**MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA**

**TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-  
SISTEMAK**

### **ERDI MAILA**

**MEKANIZAZIOA**

**INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA**

**\*INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK**

**TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK**